

Giro ederra Santa Ana eguna ospatzeko

Eguraldia lagun, urteroko meza, dantza eta parodia ospatu ziren

Urteroko zitari hutsik egin gabe, aurten ere goizeko hamaikak aldera meza ospatu zen Brijitatarrenean Xabier Andonegi apaizaren eskutik. Komentuan bertan, Erketzeko dantzariak beraien saioa eskaini zuten eta gero, irteeran arkuak jarri ondoren, berriro ere dantzan aritu ziren. Sasoiko daudela erakutsi zuten, horrelako beroa eta dantzariak fandangoa eta arin-arina dantzatzen.

Ondoren luntx txiki bat eskaini zuen Ttakunek komentuan, mezetatik irten ziren guztiei.

Gero, eguerdiko hamabiak aldera, Santa Ana karkaban ipinitako ikurrinari agurra dantzatu zioten Erketzeko dantzariak.

Goizeko ospakizunak amaituta, arratsaldean ederki afaldu eta desfilea egin ondoren, parodia ospatu zen Isla plazan. •



Arg.: Rosi Barrantes

Urtero bezala, jende ugari bildu zen meza entzutera eta karkabako dantza ikustera.

PARODIA /4-5

Isla plaza bete egin zen Santa Ana parodia zoragarria ikusteko



KIROLA /6

Iñigo Arluziaga-Imanol Bardaji bikoteak irabazi du Santa Ana Pala txapelketa

TXINTXARRIK abuztuan atea itxiko ditu. **HURRENGO ZENBAKIA** IRAILAREN 7AN argitaratuko dugu. oporrak ongi pasa!!



TEL.: 943 372760



KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria



Jalai
cafe bar

Kalitatea eta preziorik onena leku berean

EGUNEKO MENUA

Mugica jauna, nor ari da gezurretan?

■ Ezker Abertzaleko zinegotziek Okendoko eraberritze-lanei buruz Iñaki Mugicak esandakoei erantzun diete ■ Beste herritarrek bezala Udalak ere legedia errespetatu dezala eskatu dute

TXINTXARRI

Ezker abertzaleko zinegotziek, Iñaki Mugica, Hirigintza batzordeko buruari, gezurretan nor ari den eta Okendoko lanak urbanizazio planik gabe hasi direla gezurra ote den argitu dezala eskatu diote. Mugica zinegotziak Ezker Abertzaleko ordezkariak gezurretan ari direla adierazi zuen aurreko astean, baina hauek erantzun eta berriro eskatu diete Udal agintariari, beste herritar guztiek bezala, araudiak errespetatu ditzatela eta ez dezatela baimenik gabe lanik hasi.

Ezker abertzaleko Joxe Goikoetxea, Ixiar Iartza eta Txanpi Baztarrika zinegotziek bost galdera luzatu dizkiote Iñaki Mugica Hirigintza Batzordeko buruari. "Mugica jauna, nor ari da gezurretan? Gezurra ahal da Okendoko obrak urbanizazio planik gabe hasi direla? Gezurra ahal da uztailaren 9ko batzordean astebera berru Murias enpresak proiektua aurkeztuko zuela esan zenuela eta gaur oraindik ez duela aurkeztu? Gezurra ahal da urbanizazio plana Murias enpresak egin behar duela, eta proiektu hau atzeratu egingo dela? "denok suposa dezakegu, Murias enpresak zergatik ez duen



Ezker abertzaleko ordezkariak Okendoko obrak urbanizazio planik gabe hasi direla salatu dute berriro.

proiektua aurkeztu, egoera den bezalako da" udal arkitetoak azkeneko batzordean esana. Hau ere gezurra al da Mugica jauna?

PSE-PSOeko agintariak edozein herritarrek bezala arauak bete ditzatela eskatzen dute ezker abertzaleko ordezkariak: "Inozokeri eta txiste txarrik ez Mugica jauna, guk ez dugu Okendoko bizilagunen artean gezurrik, eta alar-marik sortu ezta sortu nahi ere.

Eskatzen duguna eta gobernu batzordeak bermatu behar duena, berritze lan horiek, legalitate osoan egitea da. Herritar orok pausoz pauso bete behar ditu betebeharreko tramiteak, eta udalak?"

Ezker abertzaleko hiru ordezkariak argitaratu duten salaketan galdera gehiago daude: "Lanera gontozela esan genuen lehen egunean, eta horrela ari gara, ala hori ere gezurra da? Bi urte hauetan ez

ahal dugu gure lana ardura osoz bete Mugica jauna? Gogorazi behar dizugu bigarren indarra garelako udal txetxe honetan eta gutzit bazterturik gauzkazuela eta hori zure ardura da. Pentsatzea ere galarazi behar diguzue? Agian hori nahi duzue, horrela ohituak baitzaudete, zuen "cortijoa" inongo kritikarik gabe antolatuta eta gestionatzen".

Zinegotzi abertzaleek ez dute epaitegietan salaketa jar-

tzetik bazterten. "Oposizio bezala gure lan nagusia, gure ardura, zuen lana eta erabakiak gainbegiratu, eztabaidatu eta gustatzen ez zaiguna berbideratzen saiatzea da eta bestela herriaren aurrean salatzea; eta horixe ari gara eginen. Garbi daukagu Mugica jauna zuek ez duzuela gai honetan ze pausu eman behar ditugun erabakiko, hori gure erabakia izango da eta ardura osoz egingo dugu salaketa publiko egingez edo epaitegietara joanda".

Bestalde, Mugica alkateordeak emandako erantzun azkarrak harritu egin dituela diote Goikoetxea, Iartza eta Baztarrikak. "Ze orain arte, prentsa bidez kritikatu eta zabaldu ditugun gaietan ez duzue horrela erreakzionatu; atez ate plangintza ez, kultura ekitaldietako dirulaguntzen kriterio partziala, Teresategin industrialdea, euskara planak... Egiak ziren? Arrazoi genuen? hori pentsatu behar dugu edo zuentzako bigarren mailako gaiak dira eta ez zaizue gehiegi axola?"

Bukatzeko Ana Urchueguia alkatesari zera esaten diote: "Urchueguia andrea agian zure azken agintaldian gaude eta zure obra maestra eginga bukatu nahi duzu agintaldia? Ba gauzak ondo egin". •

Gorka Brit Real Unionen datorren denboraldian

Lehenengo astean, Real Unionek bere hirugarren fitxajea aurkeztu zuen, Gorka Brit lasarteoriatarra. Taldeak aurrelaria behar zuela eta, irundarek jokalaririk lasarteoriatarrengan pentsatu zuten.

Bitek aurkezpeneko prentsaurrekoan adierazi zuenez, "beste eskaintza batzuk nituen, baina Real Unionera etorri nahi nuen. Horregatik Numantzia uzteko egin beharrekoak egiteko eskatu nion nire ordezkariari."

Era honetara, nahiz eta Soriako taldearekin beste urte baterako kontratua izan, horri uko egin eta, hurrengo denboraldian, talde txuri-beltza bigarren mailan mantentzeko lan egingo du lasarteoriatarrek.

"Errazena Numantzia geratzea zen, baina nik beste motibazioak ditut," aipatu zuen jokalaria. •



Argazkia: MUNDO DEPORTIVO

Laura Martin, Euskadiko txapelkun izan da ehizan

Buruntz Azpi elkarteko Laura Martin Hondarribiako Jaizkibel mendiko zelaietan aurreko asteburuan jokatu zen Euskadiko Ehiza Txapelketan nagusitu da eta irailan Valentzian Estatuko txapelketa parte hartzeko txartela lortu dute. Laura Martin berak eta bere zakurrak.

Uztaileko hirugarren asteburuan jokatu zen ehiza txapelketa eta Laura Martin txapelkun berriak ezustekoa eman zien saria irabazteko faborito nagusiei. Edurne Burutaran eta Modes Iraola esperientzia handiko ehiztariak dira, munduko txapelketa parte hartu dute biek eta Iraolak Estatuko txapela eraman zuen iaz baina lasarteoriatarra oso ondo aritu zen.

Bigarren urtez parte hartu du Laura Martinek txapelketan eta atzean utzi ditu bi

faboritoak. Horrela irailean Valentziako Barracas herrian burutuko den Estatuko txapelketan izango da.

Giro bikaina egin zuen ehizan aritzeko, zerua lainotu xamarra zen, eta itsasoko haize leunak zakurren lana erraztu zuen. Lehia polita ikusi zen itsas bazterreko zelaietan.

Neskatan lau ehiztarik parte hartu zuten eta denek bota zituzten zenbait eper. Azkenean Laura Martinek 60 puntu eskuratu zituen, Edurne Burutaran 49 lortu zituen eta Modes Iraolak 43.

Hirurak izango dira irailean Estatuko txapelketan, lehenengo biek Euskadi ordezkatu dute, berriek beteko dituzte Euskadiri dagozkion bi lekuak eta Iraolak iaz eskuratutako Estatuko txapela defendituko du. •

Minusbaliatuak eta langabetuak kontratatatu ditu Udalak

■ Minusbaliotasuna duten lau pertsona Villa Mirentxun hasi dira administrari laguntzaile. ■ INEM eta Europako Gizarte Funtsak ordaindu dute programa

Lasarte-Oriako Udalak martxan jarri duen integrazio programari esker, minusbaliotasuna duten pertsonen eta langabezian daudenen lana eskainiko zaie. Horrela, lau minusbaliatu Gizarte Zerbitzueta sailean administrari laguntzaile bezala hasi dira lanean. Bestalde, langabeziako poltsatik, bost peoi eta lan ezberdinetarako zazpi laguntzaile kontratatatu ditu Udalak ondorengo lau hilabeteetarako. INEMek eta Europako Gizarte Funtsak finantzatzen dute programa.

Sei hilabeteetarako kontratatatu dituzte Villa Mirentxun lanean arituko diren lau minusbaliatuak, uztailearen 13tik urtarrilaren 12ra bitartean izango dute kontratua. Udalak bultzatu duen programaren helburua integrazioa da, hau da, minusbaliotasuna dutenak lan munduan sartzeko dituzten zailtasunei aurre egin nahi zaie, hau da, pertsona horiek lanean hasiateko bultzatuko da.

Bestalde bigarren programa bat ere jarri da martxan uztailearen 20an langabetuei lana emateko. Datozen lau hilabeteetarako, erakuntzarako bost peoi eta lan ezberdinetarako zazpi laguntzaile kontratatatu ditu Udalak.

Programa, INEMak eta



Egunpasa ederraz gozatzeko aukera izan zuten irteerara animatu zirenak.

Europako Gizarte Funtsak batera finantzatzen dute. Ana Urchueguiak azaldu duenez, "administrazio publikoan eredu izateko xedea dugu eremu pribatuan ere minusbaliotasun bat duten pertsonak

kontratatu ditzaten".

"Ikasketa oso baliagarria egiten dute gero lan mundura sartzeko, eta lan bikaina egiten ari dira informatizatzen eta dokumentazioa artxibatzeko", adierazi du alkateak.

Udalak programa hauek aurrera eramaten ditu 1986an eratu zenetik, baina azpimarratzekoa da aurten berrikuntza moduan proiektuetako bat minusbaliotasun bat duten pertsonetan oinarritu dela. •

IKASTAROAK

Emakumeentzat aukera zabala Zentro Zibikoan

Ekintza desberdinak ordutegi zabalarekin prestatu ditu Emakumeen Zentro Zibikoak oporrak bukatu eta 2009-2010 ikasturteko lehenengo hiru hilabeteetarako.

Lasaiak edo gorputzari pixka bat eragite jarduerak, hala nola, batuka, antzerkia, kantua, eskulan batzuk, yoga, pilates, bolioak, tai-chi, ipuintertapia edo sevillanak.

Jarduera batzuk doanekoak izango dira mantentzeko gimnasia, osteguneko eskulanak, frantsesa, orratz-lanak, ebaketa eta jantzizintza, bideoforuma, jantzi konponketak eta patrioiak, irakurketaren txokoa eta ihauterietako konpartsa, esaterako, baina, hala ere parte hartu nahi izanez gero izena emateko beharrezkoa da tokia gozatzeko.

Ordaindu beharreko kuota ikastaro kopuruaren arabera da, zenbat eta gehiago egin merkeagoak ateratzen dira: 37,20 euro ordaindu behar dira jarduera bat egiteko, 44,50 euro bi jardueratan parte hartzeko, 48,70 euro hirutan izena emateko eta 51,90 euro lau ikastarotan edo gehiagotan izena emateko.

Emakumearen Zentro Zibikoan bertan egin behar da inskripzioa, irailaren 1etik 11era, goizeko 9:30etatik 13:30ak arte eta arratsaldeko 15:00etatik 20:00ak arte. •

KIROL JARDUERAK

2009-10 ikasturteko haurrentzako kirol eskaintza

Irailerako Kirol Udal Zerbitzuak prestatu duen kirol eskaintzaren barruan, berri aipagarria da aurten haurtxoentzat antolatuko diren igeriketa ikastaroak edo Matronatazioa.

Hainbat saio antolatu dira astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 10:30era.

Era berean, datorren ikasturterako *Kirol Ludoteka* jarduera ere prestatu du.

2005, 2004, 2003, 2002, 2001an edo lehenago jaiotako umeentzat zuzendua dagoen jarduera honetan, jokoaren bidez eta modu dibertigarrian, haurrak kirolaren praktikan hasiko dira.

Egingo diren aktibitateak partaideen adinari egokituak izango dira. Saiok bai igerilekuan bai pista balioanitzean garatuko dira eta bakoitzak erabakiko du zenbat saioetara joan.

Izena eman edo informazioa eskuratzeko Udal kiroldegira jo behar duzue. •

Haur-parkeetako zorua berritzen

Udala herriko haur parkeetako zorua berritzen ari da. Zehazki, Basaundi bailaran, Zabaletan, Urdaburu plazan, Iñigo de Loiolan eta Juan XXIII plazan dauden jolasokietako lurra aldatuko da. Zoru berria ere kautzozkoa da, baina lauzak kendu egingo dira eta dena zoru bakarra izango da. Arranbide eta Oztaranen jada iaz jarri ziren horrelako zoruak eta aurten gainontzeko parkeetan jarriko dira berritzen doazen heinean. Lauzek arazoak sortu dituzte: altxa egiten zen eta denborarekin tartetan zaborra pilatu. Lanek ia 50.000 euroko aurrekontua dute eta Garra SL enpresa ari da aldatetak egiten. Bestalde Zerbitzueta saila herriko parke guztiak begiratzen ari da, dauzkaten akatsak konpondu eta behar direnak margotzeko. •





Parodia hasi aurretik. Beltzak ermuhi taldekoak omendu zituzten es Ane Labakiak bertso bar eskaini zuten. Ondoren hasi zen Krisistina eta Krisiromo bi akustuen aurkako epaiketa, bando batzuekin.

Oribako hesian ziren bi "bretairauk" herriko zenbait proiektu es erabikerri erropaso polita eman zituzten.

Errorearen gantian errekoratadoreen izatea erabait duen Joxeausin Rekortak barre alagant eragin zituen.



Patxi zaharra berpiztu zen Santa Ana parodian

TXINTXARRI

Patxi zaharra berpiztu eta Lasarte-Oria etorri zen apaizarekin batera, besteak beste. Oria ibaiaren bestaldean urtegi bat egiteko proposatu. Lendakariak kritikatu zuten urtero agintariak kritikatu zuten den Santa Ana parodia-aren buruan deklaratu zuten testiguen artean esanaratsuna.

Krisistina Polkopardegij eta Krisiromo Yopanokomero epaitu, zigortu eta epaiketa-parodiaren anaiaren erre-egin zituzten Iñaki Pazan. Pare hartu zuten gozakiak zuten Extremadura ekizan bapoz aldiu ondoren, eta hemen burutu zen ikuskizuna.

Fiskalak eta delentsak zenbait testigu dute zituen zein baino zein berezagoa. Krisistina eta Krisiromoren abokatuak, R plana, "erre de recorte", alegia, jarri nahi zuten marban, langabezia betuntzail "escuela de recorte y conexión" eta errekoratadorea dute zituen testigu gisa deklaratu zuten Joxeausin Rekorta, rekortak gora eta rekortadorea, rezikiazeko rekortadore bihurtu nahi duen herritarra.

Olendoko obrei begira ziren bi jubitakut erre erropaso ederra eman zituen hainbat gairi, besteak beste lanean ari diren "okabolasen". Obiak jaitetako egitarauan sartzeko proposatu zuten, "como plato fuerte de las fiestas patronales, obras en la plaza del pueblo durante todos los días que duren las fiestas", eta zenbait etaldid proposatu ere bai, bestia jasotzea festi hasiera emateko, "demolición y desescombros", "exhibición de zangas" edo "busti blai en el aljorro negro descubierta" haurri-eraginean.

Cero atara zen Patxi apaizaren eta bihaika hartu zuten berarekin unero zibozaren emakume eliztarrek, "herdankasismo" deitzen zioten, "karisismo" eta Krisiromo Ronaldorekin alderatu, bera ere karisimo dela alpatuz.

Ereka bestaldera Urrezko Kopa ematera etortzen zela gogoratu zuten, "en el rollo negro, con el pueblo de Lasarte agolpeado en las aceras", "agolpeado" zuten zion apaizak.

Cero diskursuaren parte bat euskaraz egin zuten eta urtegia

egiteko ideia izan zuten: "Urcheuguis" bat izanda, uregia, ez zitzaion ideia ona inuldu batzuei. Cero apaizak anbulato-ria politikoridegi ingurura lekualdatu dela jakinik, beste "traslado" batzuk egiten laguntzeko eskatu zion, esaterako San Pedro parokia Hurbil aldera eramateko. Cero. Patxiren gairako errekoratadur moduko bat egin zuten. Botoak beste kolore bakoiz kanarien denak txuri bezala konatu zituen eta pozik geratu zen Patxi.

Azkenik, Gripa A. azeritu duen ikertan bat pasa zen testigu moduan, ambulatortoriko ikertzailearen arabera berain paretak papezkoak direla esanaz, testigu eta akusatuen arteko kareko kaleroa bihurtu zen, bata zeri auzopagatzen eta beste oloarenarekin; txerri eta oloien gripak zahaltu nahi dituztelako, erreterera zigortu zituen biak epaiketak.

Parodian beste hainbat pertsona eta talde izan ziren, besteak beste, sorgin dantzako dantzariak, pla siltokozko fusilez armatutako sultizaitale konpainia, deabunak,...



Patxi "Lendakarisimo"; fiklabari merituak emakuten. Azken unero berarekin ziren emakumen estandarte.



Iker Tzen-dola zientziazgionak A. gripa. Ikertzen ari zela beste ondorio batzuek atara zituen anbulategian. Akusatuen gileria izan zen, epaiketak kondanatu egin zituen eta deabunak erre.

ERREKATXO JATETXEA

- Eguneko menua
- Ostiraleko menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz

JAINARITZE ETA BATAJOETAKO MENU BEREZIAK

ORIA ETORBIDEA 4 • TEL.: 943 365557 • LASARTE-ORIA

ADURIZ DE LASARTE S.A.

Lodi Kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

MAITE ESTETIKAKO ARETOA

- Oto depilazioa arazi pultsatuarekin
- Era gustietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu
- Gorputzako tratamenduak

Uistin Kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji, txapeldun palan, gomazko pilotarekin

■ Iazko txapeldunak berriro nagusitu ziren Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardajiren aurka lehia luze eta berdinduaren ondoren. ■ Jon eta Mikel Begiristain anaiak izan ziren hirugarren.

JON ALTUNA

Gomazko pilotarekin jokatutako Lasarte Oriako XVIII. Pala Txapelketako finalean herriko jokalarien maila ona ikusi ahal izan zen. Michelingo frontoian bildutako ikusleen aurrean Iñigo Arluziaga eta Imanol Bardaji nagusitu ziren Xabier Etxezarreta eta Mikel Bardajiren aurrean partidu luze, gogor eta berdinduaren ondoren. Aurrelariak tanto oso politak egin zituzten, baina amaieran finaleko jokalaria onena izendatu zuten Imanol Bardajik erabaki zuen azken tantoetan. Bi pareta egin eta ondoren txokoan moztuta lortu zuen azkena. Ikusgarria.

Gomazko pilotarekin urtero jokatzen den txapelketaren XVIII. edizioa, Okendon hasi eta Michelingo frontoian amaitu da, baina finalerdietan zein finalean ikusleek ez dute hutsik egin eta giro bikaina izan da.

Pala txapelketako final ona jokatu zuten lau finalistek igande arratsaldeko 19:15tan hasita Michelingo frontoian eta hainbat gorabehera izan ziren markagailuan. 5-5 berdinketara arte txandaka aritu ziren, batzuek eta besteak

aurretik. Gero 17-17ra arte galtzaileak, urdinez aritu ziren Mikel eta Etxezarreta jarri ziren aurretik, gehienez sei tantotako aldearekin 6-12, 7-12 eta 8-14, baina Imanol eta Arluziagak berdindu eta 22-17 jarri ziren aurretik, 23-18 ere bai. Dena den, berriro urdinek berdindu egin zuten, 23-23. 26, 27 eta 28 tantotara ere berdinduak izan ziren, baina hor ihes egin zuten gorriek eta azkenean 35-31 irabazi zuten.

Lau jokalariai ondo

Bi aurrelariak Imanol eta Mikel Bardaji lehengusuek tanto ikusgarriak egin zituzten aurrean, batzuetan kale egin bazuten ere. Imanolek kale gutxiago egin zituen eta horrek eman zien txapela.

Atzelariak oso seguru aritu ziren eta errebotera heldu ziren hainbat pilota eraman zituzten. Garbi dago pilotariak ondo egokitu zirela frontoi berrira. Batetik bi pareta eta moztutako zenbait pilota ikusi ziren eta bestalde guztiek pilota zail asko altza zituzten. Epailak, Jose Felix Solano eta Patxi Castro izan ziren.

Aurretik, arratsaldeko 18:00etan hirugarren portua erabaki zuen partidua jokatu



Txapeldunak, Jose Felix Solano epailea eta Alain Etxebeste antolatzailearekin sariak jaso ondoren.

zen eta urdinez aritu ziren Jon eta Mikel Begiristain nagusitu ziren 26-35 Alain Etxebeste antolatzailearen eta Xenki Astiazaranen aurka. Azken hau Mikel Lizasoren ordeztu aritu zen.

Finalaren ondoren parte hartzaile guztiek sari bana jaso zuten. Aipamen berezia egin zioten Martin Iparragirre eta Juantxo Prietok osatutako

bikoteari: "Ez dira jokalaria hoberenak, ezta txarrenak ere, baina urtero urtero umore onarekin etortzen dira jolastera. Galtzen dutenean ez dira haserretzen eta irabazten dutenean festa haundi bat prestatzen dute". Bestalde, sari berezi bat eman zioten Aimar Lizasori, Michelingo markagailuan aurten izan duten laguntzaile berezi eta txikiari.

Zozketetan hiru zenbaki atera ziren, lehenak abuztuaren 15era arte balio du, bigarrenak irailaren 1era arte, hirugarrenak irailaren 16ra arte. Hauek dira: Txixardin Beltza jatetxean afaria bi lagunentzat, 103, 368, 607. Etxezarreta harategiko labeldun produktu sorta, 631, 573, 201. Eroski Bidaiek-en oparixtoa, 143, 115, 298. •



Txapeldunordeak beroari aurre eginez.



Finala hasi aurretik agurra dantzatu zuten finalista eta epaileei.



Aipamen berezia jaso zuen bikoteak.



Aimar Lizaso bere oparia jasota gero.

Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintzarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintzarriek ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Argazkiak eta margoak ikusgai Jalgin

RAFA ZUBIRIAREN argazkiak ikusgai izango dira Jalgi kafe-antzokian uztailaren amaiera arte. Txuri-beltzeko argazki ederrak daude ikusgai orain. Baina uztaila amaitezakoan erakusketa aldatu egingo da.

MARIA EUGENIA LACRUZ ANSAREN margoak izango dira abuztu osoan ikusgai.

UZTAILAREN AMAIERA ARTE
ETA ABUZTUAN
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Liburutegiko udako ordutegia

UZTAILEAN

Asteleheenetan, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Asteartetik ostiralera, goizez soilik, 08:00etatik 14:00etara.

Larunbatetan itxita

ABUZTUAN

Manuel Lekuona Kulturetxea itxita egongo da.



Manuel Lekuona kulturetxea

Oharrak

Etexraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etexratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Igerileku txikia itxita

Haurtxoentzat antolatutako diren Igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezke, uztailean zehar asteartetan, ostegunetan eta larunbatetan, goizeko 10:00ak eta 10:30ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat da.

Eskerrak ematea

Oriako Karmengo Amaren jaien antolatzaileek eskerrak eman nahi dituzte lerro hauen bidez beraien laguntzaga emateagatik: eskerrak Lasarte-Oriako Udalari, Pilar Catalina sopranoari, Amaia Dorronsoro organistari, Urnietako Eudene lore-dendari, Billabonako Solano Trikitilari Eskolari, Ramon Uribeetxeberria,

Xabier Andonegi eta Juan Luis Murua apaizei eta Txintxarri.

Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko kirol guneek udako ordutegia izango dute uztailetik aurrera. Honela, kiroldegia astean zehar, goizez 7:00-13:00 eta arratsaldez 17:00-22:00 egongo da irekia, baina igerilekua eguerdian 12:30ean itxiko da eta gauean 21:30ean, larunbatetan goizez bakarrik egongo da irekia 9:00etatik 13:00etara. Bulegoari dagokionez, astean zehar soilik egongo da irekia, uztailean 10:00-12:00 eta arratsaldetan 17:00-19:00 eta abuztuan 10:00-12:30. Kirol gunearen ordutegia, bi hilabeteetan, astean zehar 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 eta larunbatetan 9:00-13:00.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@takun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Haxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@takun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Dagokionari

Azkorteko bidearen egoera txarra

Lerro hauen bidez, Azkorteko ermitara doan bidearen egoera tamalgarria jakinarazi nahi dugu. Lasarte-Oriatik Azkortera doan bideko azkeneko zatia, zati politena, oso egoera txarrean dago oinezkoentzako. Herritar asko gara oinez ibiltzen garenak bide horretatik, (paseo bat ematera joanda, edo txakurrekin paseatzera...) eta nahiz eta ikusi ze egoera txarrean dagoen, ez dugu ezer egin orain arte horri irtenbide bat bilatzeko.

Ea hemendik aurrera, denon artean lortzen dugun Lasartetik ermitara doan bidea, paseo atsegina batean bihurtzea, naturarekin gozatzeko aukera emango duena eta ez orain dena, bide horretatik orain ezin baita igaro, erabat lokaztuta dago eta.

Argazkietan garbi ikusi daitezke bidearen egoera tamalgarria.

Lasarte-Oriako hainbat herritar.



EEBBetako euskal diaspora ezagutzen

Renoko Marilyn Paradis eta bere familiak arbasoen lurra, Euskal Herria, bisitatu zuten

Euskal diaspora munduan zehar zabaldua dago, baina Estatu Batuetan euskal arbasoak dituzten amerikar ugari dago. Horietako bi ditugu Marilyn Paradis eta Gloria Totoricaguena. Ekainaren bukaeran, Marilyn bere alaba Megan eta bere hiru bilobekin etorri zen haiek familiaren sorterrira eta Euskal Herria ezagutu zezaten. Gloria, berriz, Nevadako Unibertsitateko *Center for Basque Studies*-eko zuzendaria izaki, EEBBetatik sarri dator Euskal Herrira. Lasarte-Orian bildu eta haiekin guztiekin solasaldia egin eta diasporari buruz ikasteko aukera izan genuen.

NEREA EIZAGIRRE

Marilyn Paradisek duela zazpi urte Nerea Amenabar lasarteoriatarra ezagutu zuen Renon. Bere ingeleseko irakaslea izan zen eta geroztik harreman estua izan dute. Horregatik, ekainaren bukaeran, Marilyn, alaba Megan eta hiru bilobak Emma, Joe eta Amaia Nerearen etxean egon ziren Euskal Herria ezagutzeko asmoz. Egun horietan, Gloria Totoricaguena Nevadako Unibertsitateko *Center for Basque Studies*-eko zuzendaria ere Euskal Herrian zegoen eta bertan Lasarten batu ginen guztiekin.

Marilynek azaldutakoaren arabera, bere bigarren aldia zen eta alaba eta bilobena, ordea, lehenengoa.

“Haurrek ETB ikusi zuten Gabonetan Internet bidez eta patata tortila ere ezagutzen zuten,” adierazi digu Meganek eta erortzeko gogoak zituztela errepaitu digu, “txikiak, bereziki. Bere izena nondik datorren jakin ahalko baitzuen.”

Arbasoak eta euskara

Bere arbasoei buruz galdetu eta “Amona Eugikoa zen eta aitona Maulekoa. Nire euskal abizena Aznarez da,” erantzun digu.

Haien historia ere azaldu zigun, “aitonak Nevadan anaia zuen, dirua lortzeko joana. Amona, berriz, 25 urterekin iritsi zen Kaliforniara eta garbitzaile eta sukaldari lanetan egon zen. Barkuan joan zen eta zorabiatua iritsi zen EEBBetara, gaizki zegoen baina ez zuen atzera egin eta EEBBak trenez igaro eta Kaliforniara iritsi zen. Aitona Kaliforniara iritsi zen zuzenean. San Franciscon ezagutu eta ezkondu ostean, Nevadara joan eta bertan geratu ziren. Baserriak, ardiak eta mendiak

ikusi eta aproposa zela iruditu zitzaizkien, Euskal Herriaren antzekoa eta bertan geartu ziren.”

Euskal Herriari buruz hitz egiten al zioten galdetu eta “hitz egin zidaten,” erantzun digu.

Baina euskarari buruz galdetzerakoan gutxi entzundakoa dela aipatu du, “aitona-amonak bere artean gaztekeraz hitz egiten zuten, bakoitzak bere euskalkia zuen eta ulertzeko errazago zitzaizkien gaztekeraz egitea. Horregatik, gauza batzuk ulertzen ditut”.

Egun EEBBetan hizkuntza galdu dela ere adierazi digu, “txikia nintzanean ardizainen artean euskaraz hitz egiten zuten. Amona 1909an iritsi zen Amerikara eta orduan euskaraz hitz egiten zen. Artzainak aurkitzen zirenean euskaraz hitz egiten zuten Nevadan. Ez dakit zergatik utzi zen euskaraz hitz egiteari. Agian gaztelera eta ingeleza zirelako hizkuntza erabilienak Nevadan.”

Arbasoei buruz hitz egiten, Marilyn ekainaren errezetak aipatu zituen, “amon oso sukaldari ona zen eta ezagun asko etortzen zirenean euskal janaria egiten zuten. Berak ez zekien ez idazten, ezta irakurtzen ere. Beraz, jendeari erakutsi zion eta gaur egunera arte mantendu dira, esate baterako, txorizoa. Beste leku askoretan egiten dira, baina ez dute zer ikusirik amonak egindakoekin.”

Gloria Totoricaguena *Center for Basque Studies*-eko zuzendariak azaldutakoaren arabera, “txorizoa ez da hemen egiten denaren antzekoa, han saltxitxa antzekoa da, ez du ia minik eta beroa jaten da.”

Euskal diaspora

“Renoko euskaldun taldea



Gloria, Megan, Amaia, Joe, Emma eta Marilynekin euskal diaspora eta bidaiari buruz solasean egon ginen.

“ Euskal Herriko kultura eta egun EEBBetako diasporan dagoena ez da bera. Lehenengo emigranteek sortu zuten beraien kultura eta hori da mantendu dena

handia da eta kultura mantentzen saiatu gara. Unibertsitatean ere ikasketak daude, EEBBetako hoberenak, nire ustetan” zioen euskal diasporari galdetzean.

Gloria Totoricaguena hoberenak direla onartu eta “unibertsitate askotatik datoz, bertara ikastera eta horrek ematen dio garrantzia. Doktoretza egitera ere Reno eta Nevadara datoz,” azaldu zuen.

Era berean, EEBBetako diasporari buruz ere azalpen eman zizkigun, “EEBBetako mendebaldean, Nevadan Idahon eta Kalifornian euskal kolonia handia dago.”

“Boisen emigrante berriak daude eta Renon 1900 urtean iritsitakoak, beraz, Reno originalagoa da,” azpimarratu eta zera gaineratu zuen, “euskal jendeak gauza garrantzitsuak egin eta egiten ditu Nevadan, historikoki, ekonomikoki eta politikoki. 1900 urtetik aurrera, bertan finkatu eta Marilyn aitona-amonak bezala, herriak sortu zituzten.”

“Garrantzitsua da azpimarratzea, hemengo kultura eta egun EEBBetan dagoena ez dela bera. Lehenengo emigranteek sortu zuten beraien kultura bertan eta hori da mantendu dena,” adierazi du Gloriak.

Euskal jaialdiak

Honekin lotuta, Renon, uztailean, 25 eta 26ean euskal jaialdia egongo zela aurreratu ziguten. “Bi egun, dira, lehenengoan bilkurak egiten dira eta bestean festa. EEBBetako euskaldunak hurbilduko dira Renora,” esan zigun Marilyn.

Honela, urtero Renon herriak euskal kultura ezagun dezan euskal festa egiten dela azaldu digute, “euskal dantza taldea dago, txingak, aizkolariak, zahagirik ardoa edatea...” Honetaz gain, Gloriak “herrietan urtero egiten da jaialditxo, baina Boisen izaten da nagusia 5 urtean behin,” esan zigun.

Euskal arbasoak dituzten artean harreman estua dagoela eta guztiak ezagutzen direla azpimarratu du Marilyn.

“Jaialdietan ere elkar ikusten dugu eta norbaiten abizena Ibarrengoitia baldin bada, Eskoziarra ez dela badakizu,” adierazi zigun Gloriak.

Nahiz eta abizenak mantendu, arestian esan bezala euskara ez da hitz egiten. Hala ere, “euskara ikasteko euskal etxeetan aukera dago eta internet bidez ere posible da. Ikastola birtualari dago eta bakoitzak bere kabuz ikasi dezake. Gainera, Elkon badago euskarako irakasle bat,” esan zuen Gloriak.

Bidaia eta ezberdintasunak

Diasporako kontuak alde batera utzi eta bidaiari heldu gero ostean.

“Hernanin egon gara, San Juan sua ikustera joan ginen eta, Emma eta Amaiak euskal dantza taldean daudenez, dantzak ezagutu zituzten,” aipatu zuen Marilyn.

“Oso gustura ibili dira haurrak, lekuak bisitatu eta euskarako hitz batzuk ere ezagutu dituzte aste honetan,” adierazi zuen Meganek.

Gainera bertan ohitura ezberdinak daudela ere ikasi dute, “esate baterako, Renon 19:00tan afaltzen da eta ez dauzkagu ogia edo opil freskoak eguneroko,” zioen Meganek.

“Gainera, hondartzara joan eta oso jantziak ginela konturatu ginen. Hurrengoan bikiniak erosi beharko dugu. Eta hondartzan aldatzen ere ikasi dugu,” esan zigun barre algararen artean Marilyn.

“ Txikia nintzanean ardizainek euskaraz hitz egiten zuten. Ez dakit zergatik utzi zen euskaraz hitz egiteari. Agian gaztelera eta ingeleza zirelako hizkuntza erabilienak